



PRENTSA-OHARRA NOTA DE PRENSA

89. EUSKAL SOZIOMETROAREN EMAITZEN IRAKURKETA

2026ko bigarren Euskal Soziometroa (89. zk.) egiteko **3.485 inkesta** egin dira telefonoz —800 Araban, 1.485 Bizkaian eta 1.200 Gipuzkoan— **2026ko maiatzaren 20tik 26ra** bitartean. Edizio honetan, egoeraren balorazioari, arazo pertsonal eta sozialei eta jarrera politikoei buruzko ohiko galderez gain, arretaz begiratu zaio Eusko Jaurlaritzaren jarduera-arloen araberrako balorazioari.

EGOERA POLITIKO ETA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

Euskadiko herritarren % 64k uste du Euskadiko **egoera politikoa** ona edo oso ona dela; % 76k, berriz, Espainiako Estatuarena txarra edo oso txarra dela. Ekonomiaren arloan, balorazioak desberdinak dira, baina lurraldeen arteko alde hori berresten dute: % 77k positiboki baloratzen du **Euskadiko ekonomiaren egoera**; Espainiako Estatuarena, aldiz, % 53k txarra edo oso txarra dela dio. Kasu bietan, 18-29 urteko gazteek egoera ekonomikoaren balorazio negatiboagoa egiten dute, baina ez hain negatiboa egoera politikoari dagokionez, batez ere Espainiako Estatuan.

ARAZO NAGUSIAK

Euskadiko **gizarte-arazo nagusien** artean, etxebizitzarekiko kezka gora egiten jarraitzen du. Aurreko erregistro guztiak gainditu ditu eta kezka nagusi gisa sendotu da, biztanleriaren % 60k aipatzen baitu. Nahiko urrun daude lan-merkatuarekin (% 40) eta osasungintzarekin (% 24) lotutako arazoak; biak jaitsi dira martxoko neurketatik. Arazo ekonomikoak ere gutxiago aipatzen dituzte (% 13) Euskadiko herritarrek; segurtasun faltarekiko (% 21) eta immigrazioarekiko (% 15) kezkek, berriz, gora egin dute. Ideologikoki eskuinarekin identifikatzen direnen artean nabarmentzekoa da immigrazioarekiko kezka bikoiztu egiten dela; ezkerren eremuan, berriz, etxebizitzarekiko kezka indar handiagoa hartzen du.

Eguneroko bizitzan **arazo pertsonalei** dagokienez, Euskadiko herritarrek arazo ekonomikoak (% 24) aipatzen dituzte lehenik; ondoren datoz lan-merkatuarekin lotutakoak (% 23), etxebizitza (% 21) eta osasungintza (% 21). Segurtasun falta biztanleriaren % 13k aipatzen du. Martxoko neurketatik, etxebizitzarekiko, osasungintzarekiko eta segurtasun faltarekiko kezkek zertxobait gora egin dute; arazo ekonomikoekiko eta lan-merkatuarekiko kezkek, berriz, behera. Halaber, etxebizitzarekiko eta lan-merkatuarekiko kezka nabarmen handitzen da 30 urtetik beherakoan artean.

EUSKO JAURLARITZAREN BALORAZIOA

Herritarren % 36k **Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa** ona edo oso ona dela uste du, eta % 15ek txarra edo oso txarra dela. % 45ek, berriz, hala-holakoa dela dio; azken urtean, hori da gehien hazi den balorazioa. **Jarduera-arloei dagokienez**, Eusko Jaurlaritzari buruzko balorazio positiboak honako hauek dira: kultura, turismoa, euskara, ingurumena, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, mugikortasuna eta azpiegiturak, baita zientzia, unibertsitatea eta berrikuntza ere. Etxebizitza da, aldiz, baloraziorik txarrena jasotzen duen arloa; osasungintzak, administrazio-izapideak sinplifikatzeak eta justiziak ere balorazio negatiboak jasotzen dituzte.

Eusko Jaurlaritza ondoen definitzen duen ezaugarri dagokienez, herritarrek haren gaitasuna (% 18) nabarmentzen dute, eta, ondoren, hurbiltasuna (% 16), inizatiba (% 15) eta zintzotasuna (% 14). Bigarren maila batean daude arazoen diagnostiko egokia eta erantzun azkarra. Nabarmentzekoa da biztanleriaren % 18k ez duela ezaugarri horietako bat ere lotzen Eusko Jaurlaritzaren jardunarekin. 65 urtetik gorakoan artean, zintzotasuna aipatzen da gehien; 30 urtetik beherakoan artean, berriz, gaitasuna.

LEHENDAKARIGAI EGOKIENA

Oraingoan, herritarrei eskatu zaie, beren lehenitasun edo sinpatia politikoa alde batera utzita, **lehendakari izateko hautagai onena** nor litzatekeen esateko. Lautik batek (% 25) Imanol Pradales egungo lehendakaria jotzen du aukerarik onentzat. Alde handira, Pello Otxandiano dago, biztanleriaren % 11k aipatua. Herritarren % 5ak Eneko Andueza eta Amaia Martínez egokitzen jotzen dituzte; Javier de Andrések (% 3) eta Jon Hernándezek (% 1), berriz, babes txikia dute. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da inkestaren % 35ek ez dakiela edo ez diola galderari erantzun, eta % 14k uste du aipatutako hautagaietako bat ere ez dela egokia. Bloke ideologikoei dagokienez, zentroko zein eskuineko eremuetan Imanol Pradales lehendakaria hautagairik onentzat jotzen da; EAJ-PNVren eta PSE-EEren boto-emaleek zein abstentzionistek lehen aukeratzat dute; PPren boto-emaleen artean ere lehen aukera izatetik gertu dago. Ezkerren eremuan, aldiz, Pello Otxandiano da aukerarik onena, eta EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen boto-emaleen artean ere bera da hautagai gogokoena.



HERRITARREN JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Euskadiko herritarren % 42k dio **politikarekiko interes handia edo nahikoa** duela. Azken urteotan, interes hori handitzen ari bada ere, martxoko datuekin alderatuta, sei puntu jaitsi da interes handia edo nahikoa duela adierazten duen biztanleriaren ehunekoak. Politikarekiko interesa nabarmen handiagoa da unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, bigarren mailako ikasketarik ez dutenen artean baino.

Sinpatia politikoari dagokionez, Euskadiko herritarren artean, EAJ-PNV da sinpatia handiena sortzen duen alderdia (10etik 5,2 punturekin). Ondoren datoz PSE-EE eta EH Bildu, biak 4,4 punturekin. Urrunago daude Sumar (3,7), PP (2,0) eta Vox (1,0). EAJ-PNVk du sinpatia-mailarik handiena 30 urtetik gorakoan, abstentzionisten eta kolektibo gehienen artean; EH Bildu, berriz, honako kolektibo hauetan nabarmentzen da: 30 urtetik beherakoan, ikasleen eta ezkerreko edo abertzale diren pertsonen artean. Bestalde, PSE-EErekiko sinpatia gailentzen da euskal nazionalismoaren eskalari buruzko galderan bere burua kokatzeko gai ez direnen edo erantzun nahi ez diotenen artean.

Lider politikoen **ezagutza-mailari dagokionez**, Imanol Pradales lehendakaria da ezagunena (% 77); ondoren datoz Eneko Andueza eta Pello Otxandiano, biak % 50ekin, eta Javier de Andrés (% 42). Jon Hernándezek (% 20) eta Amaia Martínezek (% 30), berriz, ezagutza-mailarik txikienak dituzte. **Balorazioari dagokionez**, Imanol Pradales lehendakariak puntuaziorik altuena (10etik 5,8) lortu du, orain arteko emaitzarik onena. Ondoren Pello Otxandiano dago (5,3); biak dira gainditzea lortzen duten lider bakarrak. Atzetik daude Eneko Andueza (4,5), Jon Hernández (4,1), Amaia Martínez (3,4) eta Javier de Andrés (3,0). Nabarmentzekoa da Pradalesek eta Otxandianok bakarrik lortzen dutela gainditzea beren hautesleen artean.

Ezker-eskuin ardatzean, euskal gizarteak ezkererantz jotzeko joera du, 4,2ko batez bestekoarekin, 0tik (ezker muturra) 10era (eskuin muturra) bitarteko eskala batean. Biztanleriaren erdiak (% 50) zentroko posizioetan kokatzen du bere burua; % 31 ezkerrean eta % 10 eskuinean. Adin-taldean arabera, ezkerreko posizioak ohikoagoak dira gazteen artean —18-29 urte bitartekoen artean, % 40ra iristen dira—; adin handiagoko taldeetan, berriz, zentroak indar handiagoa du; bereziki, 65 urtetik gorakoan (% 57).

Euskal nazionalismoaren eskalan, herritarren % 32k oso abertzaletzat du bere burua; % 24k, berriz, batere ez, eta % 36 tarteko posizioetan kokatzen da. **Identitateari dagokionez**, herritarren % 43 soilik euskal herritar sentitzen dira edo euskal herritar espainiar baino gehiago—gazteen artean ohikoagoa—; % 39 euskal herritar bezain espainiar, eta soilik % 10ek du bere burua espainiartzat edo nagusiki espainiartzat. Azkenik, **balizko independentziari dagokionez**, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten: % 37 aurka dago, % 22 alde, eta % 32 egoeraren arabera alde edo kontra egongo litzateke.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Euskadin, 18 urtetik gorako herritarrei egindako 3.485 telefono-inkestak osatzen dute lagina. Lagin errorearen estimazioa \pm % 1,69 da Euskadi osorako (konfiantza-maila= % 95,5; $p=q=0,5$).

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<https://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>